

ARRAIN AZOKA
FERIA DEL PESCADO

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

Deitura, lurralde eta lanbide eremua, iraupena, helbidea eta helburuak.

1. Artikulua.- Sindikatueta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen, Apirilak 1eko 19/77 legearen babesean , Bermeoko arrainaren erauzketa, elaborazio eta komertzializazio, sektorean implikaturik dauden erakunde eta enpresak elkartzeko dituen "ARRAIN AZOKA ELKARTEA " eratzen da.

2. Artikulua.- Elkarrekin probintziako eremua izango du, enpresa eragileak eta afiliazioa haien borondatez eskatzen duten enpresak baterabilduz, Bizkaiko Lurralde Historikoan deituran agertzen den jardueraren alorrekoak izanez gero.

3. Artikulua.- Mugarik gabeko denborarako eratzen da Elkartea.

4. Artikulua.- Elkarrekin, bere helburuak betetzeko beharrezkoak diren, nortasun juridikoa eta obratzeko gaitasun betea izango ditu.

5. Artikulua.- Elkarrekin, bere helbidea ondorengo tokian finkatzen du:

Bermeoko Udala

Arana tar Goiri Enparantza

48370 BERMEO BIZKAIA

6. Artikulua.- Elkarrekin helburuak hauexek dira:

- a) Bermeoko arrantza produktuen indartze eta eragintza, batez ere, Arrain Azokaren ospatzea burutuz.

- b) Afiliatutako kideen arteko lagunkidetasuna sustatzea.
- c) Bere afiliatuen interesen ordezkatzeko, defentsa eta eragintza.

II. TITULUA

ELKARTEKO KIDEETAZ

7. Artikulua.- Elkartean, Bizkaiko lurralde eremuan hain zerbitzuak ematen dituzten eta 2. artikuluan aipatzen den lanbide aktibitatean jarduten duten enpresa eta erakundeak afiliatu ahal izango dira Estatutu hauek betetzeko baldintza bakarrarekin.

8. Artikulua.- Elkartean sarrera borondatezkoa izango da eta, edozein momentutan, partaideak bertakoak izateari utzi ahal izango diote, Zuzendaritzako Batzordeari idatziz jakinaraziz.

9. Artikulua.- Elkartean afiliatzearekin batera dator, gastuetan ekitatezko kontribuzioa edo, bala balegokio, Biltzarre Orokorrak ezarritako Kuotaren ordainketa.

10. Artikulua.- Elkarteko Biltzarre Orokorrak, bere kideren bateren kanporaketa erabili ahal izango du, ondorengo arrazoia bategatik:

- a) Estatutuetan ezarritako betebeharrak ez betetzea
- b) Biltzarre Orokorrak hartutako erabakiak ez betetzea

III. TITULUA

GOBERNU ORGANOEKAZ

11. Artikulua.- Elkartearen gobernuak, Biltzarre Orokorra eta Zuzendaritzako Batzordearen gain izango da.

12. Artikulua.- Biltzarre Orokorra, arauz ezarritako kuotak ordaindu dituzten kide guztiak osatuko dute.

13. Artikulua.- Biltzarre Orokorra, Elkarteko organu gorena da, eta bere erabakiak, Estatutu hauen arabera hartuak, kide guztientzat betebeharrezkoak izango dira.

14. Artikulua.- Biltzarre Orokorra, Arruntak eta Apartekoak izan ahalko dira. Biltzarre Orokor Arrunta urtean behin ospatuko da, eta Apartekoa, afiliatuen ehuneko hogeia ezkatuz gero edo Zuzendaritzako Batzordeak hartutako erabiagaitik izango da.

15. Artikulua.- Biltzarre orokor Arruntak eta Apartekoak, partaide guztiei emandako pertsonal eta idatzizko jakinaraziaren bidez, Elkarteko Lehendakariaren komunikatuz deituko dira, jakinaraziak batzarra izango den datatik, 15 egun naturaleko aurretiaz emango direlarik, egoki izango balitz, bigarren deialdiko batzarraren data eta ordua adieraziz.

Deialdiaren komunikazioak, Biltzarrea izango den tokia, lokala, data eta ordua kontsignatuko ditu, baita Zuzendaritzako Batzordeak erabakitako Eguneko gai-zerrendaren arabera, ukitu beharreko asuntuak ere.

Zuzendaritzako Batzordeak, "Erregu-galderak" apartatuan, afiliatuek idatzizko eskabide bidez, batzordearen dataren hiru egun aurretik egindako proposamen guztiak hartuko ditu.

Halaber, premiazko arrazoiengatik, batzar barruan planteatutako arazoak eztabaidatu ahal izango dira, bertaratu direnen ehuneko hogeiak gutzienez horrela erabakiz gero.

16. Artikulua.- Biltzarre Orokorra balioz eraturik geldituko da, lehen deialdian, kideen erdia gehi bat errepresentaturik izanez gero, eta bigarren bertaratutakoen kopurua edozein izanez gero.

17. Artikulua.- Biltzarre Orokor guztien Lehendakaritza Elkartearen Lehendakariari dagokio, zein Zuzendaritzako Batzordeko Lehendakaria izango den, bere ordeaz, aipatutako Batzordeko Idazkaria jardungo du.

Biltzarraren mahaia, Elkartearen Lehendakaria, eta txandako aldian, Zuzendarutzako Batzordeak izendaturiko bi Bokalek osatuko dute, eta Idazkari legez, Zuzendaritzako Batzordekoa jardungo du.

Biltzarre Orokorrak hartutako akorduek, gehiengo bakunaren botazioz harturikoak izango dira, Estatutu haiek gehiengo bakunaren botazioz harturikoak izango dira, Estatutu haiek gehiengo koalifikatua exijitzen duten kasuetan izan ezik.

Bere betebeharrak ekonomiko edo kuoten ordainketan egunean dagoen afiliatu bakoitzak, botu bat emateko eskubidea du.

18. Artikulua.- Biltzarre Orokorren funtzio eta kompetentziak hauexek dira:

a) Elkartearen eta bere afiliatuen interesen defentsa, gestio eta ordezkapenari buruzko akorduek hartzea.

b) Zuzendaritza Batzordeko partaideei agintealdia hautatu eta errebokatzea.

c) Gastuen banaketaren karga ekonomikoak edo afiliatuak ordaindu beharreko kuotak ezartzea.

d) Kuoten likidazioen aurrekontuak baiestea.

e) Estatutuak baieztatu edo berritzea.

f) Elkartearen desegintza erabakitzea.

g) Elkarkideek formulatutako errekurtsio eta erreklamazioak ezagutu eta erabakitzea.

h) Urteroko Arrain Azokaren martxan jartzean lan egitea.

19. Artikulua.- Biltzarre Orokorren batzarren akta jasoko da, horretarako liburu bat luzatuz, Lehendakariak eta Idazkariak sinaturik.

20. Artikulua.- Zuzendaritza Batzordea, zuzentzeko, gobernatzeko eta administratzeko karguan dagoen organua da. Biltzarre Orokorrak izendatutako Biltzarre Orokorreko Lehendakaria eta Idazkari batek osatuko dute Zuzendaritza Batzordea. Hitzarmen Kolektiborako Komisio Deliberatzaile modura eratzen denean, Biltzarreak seinalatutako bokalak sartuko dira Komisio horretan.

21. Artikulua.- Zuzendaritzako Batzordea, ondorengo ahalmen eta funtzioak izango ditu:

- a) Biltzarre Orokorrean hartutako akorduen exekuzio eta betetzea.
- b) Elkartearen helburuen egikaritzea eta garapenerako beharrezkoak diren Elkartearen ekintzak burutu eta gauzatzea.
- c) Aurrekontuak, balantzeak, kontuen likidazioak eta kuota proposamenak, Biltzarre Orokorrean aurrean jartzea, baiestuak izan daiten.
- d) Bere ihardueraren emaitzak aurkeztea, bere aprobazioarako, Biltzarre Orokorraren aurrean jarritz.
- e) Kobrantsa eta ordainketaren agintzeari buruz, erabakiak hartzea.
- f) Ondasun, zerbitzu, akzioen jardunketa eta ahalordeak emateari buruzko akordua hartzea.

22. Artikulua.- Biltzarre Orokorrak hautatu eta errebokatuko du Elkarteko Lehendakaria bere agintean, eta honek, Biltzarre Orokorra eta Zuzendaritzako Batzordea presidituko ditu.

23. Artikulua.- Lehendakariaren funtzio eta atribuzioak ondorengoak dira:

- a) Biltzarre Orokorra eta Zuzendaritzako Batzordea presiditzea.
- b) Eztatidak eta batzarren ordena zuzentzea.

c) Elkartea errepresentatzea, kontratuak izenpetzea eta ahalordeak ematea eta edozein motatako akzioak exekutatzea, Biltzarre Orokorraren beharrezko baimenarekin.

24. Artikulua.- Biltzarre Orokorrak hantatuko du Elkarteko Lehendakariordea, hau, Biltzarre Orokorraren eta Zuzendaritzako Batzordearen Lehendakariordea izango dalarik.

Lehendakaria ordezkatzeko du bere ausentzieetan eta Lehendakariaren betegabea emango balitz, betegabe hori beteko du. hautaketa berri bat burutua izan arte.

25. Artikulua.- Biltzarre Orokorrak hautatuko du Elkarteko Idazkaria, hau, Biltzarre Orokorraren eta Zuzendaritzako Batzordearen Idazkaria izango delarik. Elkarteko Idazkariak, Elkarteko organuen batzarren akta jasoko du, eta pertsonala eta serbitzuak zuzentzeko kargua izango du.

IV. TITULUA

ERREGIMEN EKONOMIKOA

26. Artikulua.- Ondorengo puntuak osatuko dituzte Elkarteko finantza akorduak:

a) Eragindako gastuen banaketarako kuotak.

b) Biltzarre Orokorrak ezarritako Elkarteko partaideen bestelako Kuotak.

c) Legezko xedapenak eta estatutu aginduen arabera egindako beste edozein errekurtsioak.

27. Artikulua.- Zuzendaritzako Batzordeak ezarriko ditu administrazio eta kontabilitaterako arauak, pagu agintzailea Elkarteko Lehendakaria izango delarik. Biltzarre Orokorrak, beharrezko neurriak antolatuko ditu, elkarkideek Elkartearen egoera ekonomikoa ezagutu ahal dezaten.

V. TITULUA

ELKARTEAREN DESEGINTZA

28. Artikulua.- Elkartea. afiliatuen bi herenak emandako aldeko botuekin, Biltzarre Orokorrak akordaturik gero desegingo da.

Burutu gabeko betebeharrak gogoan hartuta gero, gelditu ahal daitezkeen elkarrearen ondasun, eskubide, instalazio, eta zerbitzuen etorkizuna, desegintza akorduan ezarriko da.

29. Artikulua.- Biltzarre Orokorrak besterik akordatu ezean, Zuzendaritza Batzordeko partaideak jardungo dute likidatzaile moduan.

VI. TITULUA

ESTATUTUEN ALDAKETA

30. Artikulua.- Estatutu hauek aldatuak izan daitezke afiliatuen bi herenak emandako aldeko botuekin, Biltzarre Orokorrak erabakitako akordatuaren arabera.

Aldaketa proiektua, gutxienez elkarkideen herena, edo Zuzendaritzako Batzordeak proposatua izan beharko da, eta Elkarteko partaide guztiei bidaliko zaie, 20 eguneko aurretiaz gutxienez.